


VENTA ALEGRE ETXEA
C MAILA

KRISTOBAL BALEZIAGA 94-96



Egile eta data ezezagunak

Deskribapena

Igeldoko hirigunearen sarreran dago. Errepidearen lubetaren gainean dagoenez bere oin baxuena eraikinaren atzealdera irekitzen da. Guztira hiru oin eta estalkipeko bat dauzka, hura zenbatuta. Atzealdeko fatxadan ez beste bao eta katoi guztietan harlanduzko azpadurak ditu. Lau isurkiko estalkiak teilatu hegali ez duenez erlaitzak (harlanduzkoa eta molduratua) markatzen du eraikuntzaren bolumena (estalkia ezkutatua dagoelako, baldin eta eraikuntza bera baino leku altuago batetik begiratzen ez bada).

Babes erregimena

- 1.- Babes erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: Hego-mendebaldeko fatxadan kokaturiko mandio erdi estalia; Ipar-ekialdeko fatxadako eranskina; jatorrizko eraikinarenak eta/edo eraikin nagusiarenak ez diren gainerako elementuak.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzek:
 - * Ipar-ekialdeko fatxadan dagoen altzairu herdoilgaitzeko tximinia ezabatzea.
 - * Ipar-ekialdeko fatxadako eranskina ezabatzea.
 - * Hego-mendebaldeko fatxadako mandioa ezabatzea, baldin eta eraikinaren barruko komunikazioak behar bezala antolatzeke ezinbestekoa ez bada.